

Ikasgeletako sagu eta teklatuei buruzko gidaren ondoren, bideoarekin zerikusia daukaten beste lan batzuei buruzko informazioarekin gatozkizue oraingoan. Gradu Aretoan eta Areto Nagusian egiten diren jardunaldi, kongresu eta hitzaldiak grabatzen ari gara. Grabatutako bideoekin bideoteka bat osatzen ari gara. Bertan dauden bideoetan interesaturik baldin ba zaudete, Letren Fakultateko web gunearen hasierako orritik bideotekaren datu basea ikusi daiteke: **Letren Fakultateko hasierako orria / Beste batzuk / bideoteka** edo bestela hurrengo helbidean:

Beste batzuk
Kalitatea eta Berriztapena
Bideoteka 
Europako Konbergentzia
Araudia
Idazkaritza
Ikasketa-memoriak
Irakurleak
Esteka interesgarriak
Logotipoa

[http://www.lettrak.ehu.es/p245-content/es/contenidos/informacion/videoteca/es\\_bbdd/adjuntos/2010\\_bideo\\_ddbb\\_opt.pdf](http://www.lettrak.ehu.es/p245-content/es/contenidos/informacion/videoteca/es_bbdd/adjuntos/2010_bideo_ddbb_opt.pdf)

Datu basea urteka sailkatua dago, PDF dokumentutan, bilaketak errez egin ahal izateko, gaia, hizlaria e.a. bilatuaz. Bideotekan dagoen bideoen bat erabiltzea nahi baduzue zuen ikasgaia emateko, DVD edo PenDrive bat ekarri ezaguzue bertan kopia egiteko.

Gradu Aretoan edo Areto nagusian antolatzen duzuen ekitaldiren bat grabatua izatea nahi baduzue honako pauso hauek jarraitu behar dituzue:

1. Aretoaren erreserba egiterakoan, fitxan, grabaketa nahi duzuela adierazi.
2. Hitzaldia eman behar duenari grabatua izateko baimena eskatu eta honako baimen orri hau sinatu arazi.
3. Grabaturiko hitzaldiren bat EHUTB-n gure bitartez argitaratzea nahi baduzue, hizlariaren baimenean EHUTB-n argitaratzeko baimena ematen duela ziurtatu eta gero honako argitalpen eskaera hau bete.

Gorderik eduki dezakezuen fakultateari buruzko ikus-entzunezko materiala ere artxibatu nahiko genuke, beraz eskertuko genizueke horrelako materialik edukiaz gero, kopiatzen uztea.